## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEKO ETA TURISMOKO DEPARTAMENTUA

*2012ko irailaren 9ko Foru Agindua, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestuan Ehizan aritzeko Plan Teknikoa onartzeari buruzkoa.*

Eusko Jaurlaritzak emandako otsailaren 10eko 34/2009 Dekretuaren bidez, biotopo babestu izendatu zen Deba eta Zumaia arteko itsasertza.

Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Natura Baliabideak antolatzeko Plana onartzen duen otsailaren 10eko 33/2009 Dekretuaren 4. atalean –naturagune babestuaren «Antolamendua eta araudia»– honakoa zehazten da: «Ehizaren Plan Teknikoa erredaktatu bitartean, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Urteko Debekualdi Aginduen bidez arautuko da jarduera, eta Organo Kudeatzaileak ehiza-baliabideak antolatzeko beharrezkoak diren berariazko neurriak hartu ahal izango ditu». (4.4.4.3.a. araua).

Era berean, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Natura Baliabideak antolatzeko Planaren jarraibideetan, honakoa aurreikusten da: «Organo Kudeatzaileak jarduera hau antolatzeko Ehizaren Plan Tekniko bat (ikus VI. eranskina) moldatuko du, eta haren xedea izango da ehiza-aprobetxamendu orekatu bat eta eremuaren aisialdi-erabilera bateragarri egitea». (4.4.4.2.a. jarraibidea).

Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak honakoa ezartzen du 6.1. artikuluan: «Ehiza-baliabideak baliabideen plangintza bati jarraituz ustiatuko dira»; eta hau gehitzen da: «Araubide bereziko lurrei dagokienez, araudi berezietan ezarritakoari ere jarraitu beharko zaio». Naturagune babestuei buruz, aipatutako legearen 26. artikuluan, hau zehazten da: «Lur horietan ehizan aritzeko, kontuan hartuko da gune bakoitzaren erabilera arautzen duten xedapenetan jasotakoa».

Hori dela-eta, «Natura baliabideak antolatzeko plan hau garatzeko agiriak» izenburua duen VI. eranskinean, hau adierazten da: «beharrezkoa izango da natura-baliabideak antolatzeko plan hau garatzen duten berariazko agiriak prestatzea»; eta VI. eranskinaren 2. atalean berariaz jaso da «Ehizaren Plan Teknikoa».

Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 25.1. artikuluan, honakoa xedatzen da: «Foru-organo aginpidedunek kudeatu beharko dituzte babestutako naturaguneak». 26. artikuluan, berriz, naturaguneak kudeatzeko organoen eginkizunak jasotzen dira, eta e) idazki-zatian, zehazki, honakoa: «Indarrean dagoen legedian, Natura Baliabideen Antolamendu Planetan eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planetan aurreikusitako beste edozein eginkizun».

Horregatik guztiagatik, diputatu honek, Gipuzkoako Lurraldeko Ehiza Kontseiluari entzun eta gero, Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 25.1. eta 26.e) artikuluetan zehaztutakoari jarraituz,

XEDATU DU

*Lehenengoa:* Onartzea Foru Agindu honen eranskin moduan jasotako Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestuan Ehizan aritzeko Plan Teknikoa.

*Bigarrena:* Foru-agindu hau eta onartu den Ehizarako Plan Teknikoa Aginduaren eranskin moduan argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE INNOVACION, DESARROLLO RURAL Y TURISMO

*Orden Foral de 9 de octubre de 2012, de aprobación del Plan Técnico de Caza del Biotopo Protegido del tramo litoral Deba-Zumaia.*

Mediante Decreto 34/2009, de 10 de febrero, del Gobierno Vasco, se declaró biotopo protegido el Tramo Litoral Deba-Zumaia.

El Decreto 33/2009, de 10 de febrero, del Gobierno Vasco, por el que se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del tramo litoral Deba-Zumaia, en su apartado 4, dedicado a la «Ordenación y normativa» del espacio natural protegido, establece que «En tanto en cuanto no se redacte el Plan Técnico de Caza, esta actividad estará regulada por las Ordenes Anuales de Veda del Territorio Histórico de Gipuzkoa, pudiendo el Órgano Gestor adoptar las medidas específicas necesarias para la ordenación de los recursos cinegéticos». (Norma 4.4.4.3.a).

De la misma forma, el PORN del tramo litoral Deba-Zumaia, entre sus directrices, prevé así mismo que «El Órgano Gestor elaborará un Plan Técnico de Caza (ver anexo VI) que tendrá por objeto compatibilizar un aprovechamiento cinegético equilibrado, con el uso recreativo del espacio». (Directriz 4.4.4.2.a).

Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza, establece en su artículo 6 1. que «El aprovechamiento de los recursos cinegéticos se realizará conforme a una planificación de los recursos», indicando que «en los terrenos de régimen especial se ajustará, además, a lo que se disponga en su normativa específica». En relación con los Espacios Naturales Protegidos, el artículo 26 de dicha norma añade que «El ejercicio de la caza en ellos se ajustará a lo prevenido en las disposiciones que reglamenten el uso y disfrute de cada espacio».

Por ello, en el Anexo VI, bajo el título «Documentos para el desarrollo del presente PORN», se indica que «será necesario elaborar documentos específicos que desarrollen este PORN», contemplándose expresamente en el apartado 2 de dicho Anexo VI el «Plan técnico de caza».

La Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza del País Vasco, en su artículo 25.1 establece que «Corresponderá a los órganos forales competentes la gestión de los espacios naturales protegidos», mientras que en el artículo 26 señala las funciones que corresponden a los órganos de gestión de los espacios naturales, figurando en su apartado e) las «previstas en la legislación vigente, en los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales y en los Planes Rectores de Uso y Gestión».

Por todo lo expuesto, este Diputado, oído el Consejo Territorial de Caza de Gipuzkoa, en virtud de cuanto establecen los artículo 25.1. y 26.e) de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza del País Vasco, en su artículo 25.1.

DISPONE

*Primero:* Aprobar el Plan Técnico de Caza del Biotopo Protegido del tramo litoral Deba-Zumaia que figura como Anexo a la presente Orden Foral.

*Segundo:* Publicar en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa la presente Orden Foral y el Plan Técnico de Caza objeto de aprobación como anexo a la misma.

ERANSKINA

## DEBA ETA ZUMAIA ARTEKO ITSASERTZEKO BIOTOPO BABESTUAN EHIZAN ARITZEKO PLAN TEKNIKOA

33/2009 Dekretuaren bidez onartu zen Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Natura Baliabideak antolatzeko Planean (2009ko martxoaren 25eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) zerrendatuta daude planen bidez antolaketa berezia izan beharko duten alorreko eremuak, Natura Baliabideak antolatzeko Planean jasotako araudia bera garatzearren. Aipatutako plan horien artean, «ehizaren plan tekniko» bat dago, antolatutako eremuko ehiza-jarduerari buruzko diagnosia, jolas-erabilerari buruzko diagnosia, sor daitezkeen arazoen azterketa, eta baliabidea eta horren aprobetxamendua kudeatzeko proposamen bat barnean izan beharko dituena.

Natura Baliabideak antolatzeko Planean gaingiroki deskribatzen da pase-garaian (urria-abendua) erabilitako postu finkoetatik funtsean hegazti migratzaileen ehizan oinarritutako jarduera. Badirudi beste modalitate batzuk egun gutxiagotan egin daitezkeela, Biotopo Babestuaren eremuan ehiza-baliabideak eskasak izatearen ondorioz.

Natura Baliabideak antolatzeko Planean agindutakoari jarraituz, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestuan ehizan aritzeko Plan Teknikoan kontuan hartu behar da ehiza-jarduera eta jolas- zein didaktika-jarduerak bateragarri egiteko beharra, organo kudeatzailea sustatzen ari den bezala. Bi erabilera mota horiek bat egin dezakete noizean behin edo maiztasun handiagoz, espazioan nahiz denboran, eta horrek hainbat arazo sor litzake, planean konpondu beharrekoak.

Ehizaren plan tekniko honen printzipio gidaria da, beraz, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestuan dauden ehiza-baliabideen erabilera kudeatu eta arrazionalizatzea zein Lurraldeko gainerako erabilerekin bateragarri egitea.

### ATALAK

*A) Ehizan aritzeko zonakapena.*

Hemen azaldutako aginduak eta iritzi teknikoak kontuan hartuta, ehizan aritzeko zonakapen bat ezarriko da, gune hauek bereizita:

Gune ez zinegetikoak.

Gune ez zinegetikoetan ez dago baimenduta ehizan erregulartasunez aritzea (ikus 4. mapa):

— Natura Baliabideak antolatzeko Planean ezarritako erreserbaguneak. Zona horiek ehiza-erreserba modukoak izango dira Biotopo Babestua izango den Ehiza Kontrolatuko Esparruan.

— Segurtasun-zonak: Euskadiko Ehizaren 2/2011 Legean jasotakoak; aipatutako legean zehaztutako distantziak ezarriko zaizkie.

Hegazti migratzaileak postu finkoetatik ehizatzeko lerroak.

Tiro-postuak zehazki zeintzuk izango diren erabaki bitartean, lerro hauek finkatu dira:

— Santa Klara.

— Pikote.

— Iturritza.

— Itsaspuru.

— Arantzamendi.

— Itsaspe.

ANEXO

## PLAN TÉCNICO DE CAZA DEL BIOTOPO PROTEGIDO DEL TRAMO LITORAL DEBA-ZUMAIA

El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Tramo Litoral Deba-Zumaia, aprobado mediante Decreto 33/2009 (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del 25 de marzo de 2009) enumera distintos ámbitos sectoriales que deberán ser objeto de ordenación particular a través de planes, en desarrollo de la propia normativa contenida en el PORN. Entre ellos se incluye un «plan técnico de caza», que deberá incluir al menos un diagnóstico de la actividad cinegética en el ámbito ordenado, un diagnóstico del uso recreativo, un análisis de posibles problemáticas y una propuesta de gestión del recurso y de su aprovechamiento.

El PORN describe someramente una actividad cinegética basada fundamentalmente en la caza de las aves migratorias desde puestos fijos empleados durante la pasa (octubre-diciembre). Otras modalidades parecen ofrecer muchas menos jornadas, consecuencia de la escasez de recursos cinegéticos en el ámbito del Biotopo Protegido.

De acuerdo con el mandato del PORN, el plan técnico de caza para el Biotopo Protegido del tramo litoral Deba-Zumaia debe responder a la necesidad de compatibilizar la actividad cinegética con actividades recreativas y didácticas, que el órgano gestor viene promoviendo. Ambos tipos de usos pueden coincidir ocasionalmente o con mayor regularidad, en el espacio y en el tiempo, constituyendo este hecho una eventual fuente de conflictos, que el plan debe resolver.

El principio orientador de este plan técnico de caza es, por tanto, gestionar y racionalizar el uso de los recursos cinegéticos en el Biotopo Protegido del tramo litoral Deba-Zumaia y compatibilizarlo con el resto de usos del territorio.

### APARTADOS

*A) Zonificación cinegética.*

Teniendo en cuenta estas prescripciones, así como las consideraciones técnicas hasta aquí expuestas, se establece una zonificación cinegética de manera que se diferencian:

Enclaves no cinegéticos.

Son aquellas zonas donde no está permitida la práctica de la caza de manera regular (ver mapa 4):

— Zonas de Reserva establecidas en el PORN. Estas zonas actuarán a modo de reserva cinegética de la Zona de Caza Controlada en que se constituirá el Biotopo Protegido.

— Zonas de Seguridad: Las establecidas en la Ley 2/2011 de Caza de Euskadi, a las que se les aplica las distancias establecidas en dicha ley.

Líneas de caza de aves migratorias desde puestos fijos.

Se establecen, a expensas de determinar exactamente los puestos de tiro, las siguientes líneas:

— Santa Clara.

— Pikote.

— Iturritza.

— Itsaspuru.

— Arantzamendi.

— Itsaspe.

Lerro eta postu horiek Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postuen erregistroan sartuko dira, uso migratzaileen eta birigarroen ehiza ohiko pasabideetan arautzen duen 2007ko urriaren 25eko Foru Aginduan xedatutakoaren arabera. Edozer aldaketa Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak onartua izan beharko da.

Aparkalekuak.

Aparkatzeko prestatutako gune batzuk jarriko dira, ehiztarien ibilgailuak aparkatzeko. Erakunde kudeatzaileak beste aparkaleku-gune batzuk proposatu ahal izango ditu, beharrezkotzat jotzen badu.

Jardun zinegetikoa.

Ehizan aritzeko, departamentuak onartutako Debekualdien Foru Aginduan ezarritakoa bete beharko da. Eta, horrez gain, ezartzekoa izango da ehizari buruz indarrean dagoen araudi orokorra.

*B) Gai orokorrak.*

— Biotopo Babestu osoa ehizan aritzeko kudeaketa zinegetikoko unitate moduan eratu da, eta ehiza-araubide bereziko lurra da, Ehizaren 2/2011 Legeari jarraituz.

— Oro har, Biotopo Babestuaren barruan onartutako ehiza xehean aritzeko aprobetxamendu zinegetikoak honakoak dira:

* Debekualdi erdian ehizatzea, Debekualdien Foru Aginduan ezarritako datetan. Baimendutako espezieak hauek dira: Galeperra, usapal arrunta eta pagausoa.

* Ehiza xehea jauzi modalitatean, txakurrarekin, denboraldi orokorrean. Baimendutako espezieak hauek dira: Oilagorra, hegabera, istingor arrunta, pagausoa, durdula, garraztarroa, birigarro arrunta, birigarro txikia, mika arrunta eta belabeltza.

* Pagausoak eta birigarroak ehizatzea, ohiko ehiza-lerro izendatutako postu finkoetatik.

— Ehiza larria alboan dauden ehiza kontrolatuko guneen kudeaketaren barruan sartuko da; hala ere, egin litezkeen uxaldiak berariaz onartu beharko ditu Biotopoa kudeatzen duen organoak.

— Biotopoa kudeatzen duen organoaren irizpide, tutoretza eta kontrolaren pean, Ehiza Federazioak, bertako kide diren elkarteekin lankidetzan, Biotopoan baimendutako ehiza-aprobetxamendua kudeatzeko ardura izango du, foru-agindu honen bidez onartzen den ehizaren plan teknikoan ezarritako baldintzen arabera. Federazioak urtero burutuko du ehizaren segimendurako plan bat, eta organo kudeatzaileari helaraziko dio. Agiri horretan, informazio hau gutxienez jaso beharko da:

* Administrazio-datuen laburpena.

* Gunean denboraldian ehizan aritu diren ehiztarien zerrenda.

* Harrapaketen parteak; bertan jasoko dira ikusitako edo ehizatutako espezie bakoitzeko ale-kopurua eta erreferentzia-data.

* Aurkitutako gaixotasun, toxikotasun edo anomaliak.

* Habitata, espezieak edo ehizan aritzeko ekipamenduak hobetzeko proposamenak.

* Espezie zinegetikoek eragindako kalteak.

Estas líneas y puestos se incluirán en el registro de líneas y puestos de paso tradicional de Gipuzkoa, establecido en la Orden Foral de 25 de octubre de 2007, por la que se regula la caza de palomas migratorias y zorzales en pasos tradicionales. Cualquier modificación deberá ser aprobada por el Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.

Aparcamientos.

Se establecerán una serie de puntos habilitados, con el objeto de que sirvan para el estacionamiento de vehículos de cazadores. La entidad gestora podrá proponer puntos nuevos de aparcamiento, en caso que se considere necesario.

Práctica cinegética.

La práctica cinegética cumplirá lo establecido en la Orden Foral de Vedas aprobada por el Departamento. Además de ser de aplicación la normativa general vigente en materia de caza.

*B) Cuestiones generales.*

— La totalidad del Biotopo Protegido constituye una unidad de gestión cinegética para la caza, estableciéndose como terreno de régimen cinegético especial, en aplicación de la Ley 2/2011 de Caza.

— Los aprovechamientos cinegéticos de caza menor permitidos con carácter general dentro del Biotopo Protegido son:

* La caza en media veda en las fechas establecidas en la Orden Foral de Vedas. Las especies autorizadas son la codorniz, la tórtola común y la paloma torcaz.

* La caza menor al salto con perro durante la temporada general. Las especies autorizadas son becada, avefría, agachadiza común, paloma torcaz, zorzal real, zorzal charlo, zorzal común, zorzal alirrojo, urraca y corneja negra.

* La caza de paloma torcaz y de zorzales desde puestos fijos declarados como líneas tradicionales de caza.

— La caza mayor se realizará integrándola en la gestión de las zonas de caza controlada adyacentes, si bien las posibles batidas a realizar deberán ser autorizadas tácitamente por el órgano gestor del biotopo.

— Bajo los criterios, tutela y control del órgano gestor del biotopo, la Federación de Caza, con la colaboración de sus sociedades asociadas, será la encargada de la gestión entidad adjudicataria de la gestión del aprovechamiento cinegético autorizado en el biotopo en las condiciones establecidas en el plan técnico de caza aprobado mediante la presente orden foral. La Federación realizará anualmente y entregará al Órgano Gestor un Plan de Seguimiento Cinegético. En este documento se hará constar, al menos, la siguiente información:

* Resumen de los datos administrativos.

* Relación de cazadores que han cazado en la Zona durante la temporada.

* Partes de capturas, donde se hará constar el número de ejemplares vistos y/o cazados de cada especie y fecha de referencia.

* Enfermedades, toxicidades o anomalías observadas.

* Propuesta de mejoras sobre el hábitat, sobre las especies o sobre los equipamientos para la práctica de la caza.

* Daños producidos por especies cinegéticas.

— Honakoa ez dago baimenduta:

* Baimenik gabe ehizan aritzea.

* Erbiak ehizatzea.

* Usoak eta birigarroak ehizatzea izendatutako ohiko postu-lerroetatik kanpo, Ehiza-debekualdien Foru Aginduan ezarritako zozketa-aldian.

* Plan honetan ezarritako gune ez zinegetikoetan ehizan aritzea.

* Erakustaldiak, probak edota lehiaketak egitea Biotopo Babestuaren barruan.

* Ehiza-txakurrak trebatzea. Igarotzeko edo paseatzeko nahitaezkoa izango da txakurrak zorroztasunez kontrolatzea, basa animalia, ganadu edo beste erabiltzaile batzuei eragozpenik ez sortzeko.

— Biotopo Babestu osoan, salbuespenez, bertan bizi diren edo igarotzen diren espezieetako aleak harrapatzeko baimena eman ahal izango da, ehiza larriko espezieak barne, betiere ekosistemetan edo ekoizpen-sistemetan kalte handiak gertatu direnean, eta indarrean dagoen legeria zorrotz betez gero.

— Igarotze askeko bide-saretik kanpo ehiza-jarduerekin zerikusia duten ibilgailuez ibili eta horiek aparkatzeko, beharrezkoa izango da baimena izatea, organo kudeatzaileak emanda. Ibilgailu horiek aparkatzeko prestatu eta seinaleztatu diren lekuetan aparkatuko dira.

Ehiza xehea jauzi modalitatean.

— Bete beharrekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoan kanpaina bakoitzeko ehiza-aldiak eta baldintza orokorrak finkatzen dituen foru-agindua.

— Biotopoan baimendutako ehiza-aprobetxamendua kudeatzen duen erakundeak ehiza xehearen banakako baimen-sistema bat ezarriko du, plan honen baldintzen arabera.

— Biotopo Babestuko eremuan ehizan arituko den gehieneko eskopeta-kopurua 20 izango da egun bakoitzeko. Era horretan, gehienez ere 20 banakako baimen banatu ahal izango dira eguneko.

— Baimen horiek ezin izango dira banatu Ehiza-debekualdien Foru Aginduan ezarritako postuen zozketa egiten den aldian.

— Ehiztari bakoitzak eguneko hiru oilagor ehizatu ahal izango ditu gehienez.

— Ehiztariak ehizan aritu ahal izango dira, bakar-bakarrik, erakunde kudeatzaileak emandako baimena badute, eta ehiza-egunetan izandako emaitzen egoera-orri bat helaraziko diote aipatutako erakundeari.

Hegazti migratzaileak postu finkoetatik ehizatzea.

— Ohiko pasabideetako lerroetan, aplikagarria izango da 2007-10-25eko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aprobetxamendu komuneko ehiza-lurretan kokaturiko ohiko pasabideetan uso migratzaileen ehiza arautzen duena.

— Postu bakoitzeko bi eskopeta baimenduko dira gehienez ere, eta postu bakoitzean ezin izango dira bi ehiztari baino gehiago egon.

— Ehizaldian, lerro bakoitza non dagoen adieraziko da informazio hori ematen duten txartelen bidez, erabilera publikoko bideen elkarguneetan edo horietatik hurbileko lekuetan kokatuta.

— No está permitido:

* Cazar sin la correspondiente autorización.

* Cazar liebre.

* Cazar palomas y zorzales fuera de las líneas tradicionales de puestos declaradas, durante el período de sorteo establecido en la Orden Foral de Vedas.

* Cazar en las zonas establecidas como enclaves no cinegéticos en este Plan.

* La celebración de exhibiciones, pruebas y/o competiciones de carácter cinegético dentro del Biotopo Protegido.

* El entrenamiento de perros de caza. Para el tránsito o paseo será obligatorio el control estricto de los perros de manera que no puedan molestar ni perjudicar a la fauna silvestre, al ganado o a otros usuarios.

— Se podrán autorizar con carácter excepcional, en todo el ámbito del Biotopo Protegido, capturas de ejemplares de las distintas especies que habiten o transcurran por el mismo, incluyendo las consideradas de caza mayor, cuando concurran daños importantes a los ecosistemas o sistemas productivos, siempre en el cumplimiento estricto de la legalidad vigente.

— Fuera de la red de accesos de tránsito libre, la circulación y estacionamiento de vehículos relacionados con actividades cinegéticas requerirá la posesión de una autorización pertinente concedida por el Órgano Gestor. Estos vehículos estacionarán en las zonas acondicionadas y señalizadas al efecto.

Caza menor al salto.

— Será de aplicación la Orden Foral de por la que se fijan los periodos hábiles y condiciones generales de caza en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para cada campaña.

— La entidad gestora del aprovechamiento cinegético autorizado en el biotopo implantará un sistema de pases individuales para la caza menor, que se adecuará a las condiciones de este Plan.

— El límite máximo del número de escopetas/día, que pueden cazar en el ámbito del Biotopo Protegido, durante los períodos autorizados, será de 20. De esta forma, se podrá distribuir un máximo de 20 pases individuales diarios.

— Estos pases no se podrán emitir durante el período de sorteo de los puestos establecido en la Orden Foral de Vedas.

— Se establece un cupo máximo tres becadas capturadas por cazador y día.

— Los cazadores, que podrán ejercer la práctica de la caza sólo si están en posesión del correspondiente pase concedido por la entidad gestora correspondiente, entregarán a ésta un estadillo relativo a los resultados de las jornadas de caza.

Caza de aves migratorias desde puestos fijos.

— Será de aplicación a las líneas de paso tradicional la Orden Foral de 25-10-2007 para la regulación de la caza de palomas migratorias y zorzales en pasos tradicionales situados en terrenos cinegéticos de aprovechamiento común en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— El número máximo de escopetas permitidas por puesto es de dos, no pudiendo haber más de dos cazadores por puesto.

— Durante el periodo hábil de caza se advertirá la presencia de cada línea mediante carteles informativos, al menos en las intersecciones o proximidades con caminos de uso público.

— Ehiztariek ehiza-postuak garbitu beharko dituzte; horretarako, egunero bildu beharko dituzte kartutxo-zorroak eta sor daitezkeen bestelako hondakinak. Adierazitakoa betetzen ez bada, debekatu egingo da ehizan aritzea garbi mantentzen ez den postuan.

— Postuak eraiki edo konpontzeko, edo horien egituran edo kokalekuan edozein aldaketa egiteko, landarediaren gaineko eraginak barne (inausketak, mozketak, etab.), beharrezkoa izango da organo kudeatzailearen baimena.

— Ehiztarien txakurrak lotuta eduki beharko dira postu finkoen oinarrian, botatako piezak jasotzeko erabiltzen direnean izan ezik.

Donostia, 2012ko urriaren 9a.—Jon Peli Uriguen Ansola, foru diputatua.

(6352) (9501)

— Los cazadores deberán proceder a la limpieza de los puestos de caza recogiendo diariamente las vainas de los cartuchos y otros desperdicios que pudieran generarse. El incumplimiento de lo señalado conllevará la prohibición de la caza en el puesto que no se mantenga debidamente limpio.

— La construcción o reparación de los puestos, así como cualquier modificación de la estructura o ubicación, incluyendo afecciones a la vegetación (podas, cortas, etc.) deberá contar con la autorización del Órgano Gestor.

— Los perros de los cazadores deberán estar atados en la base de los puestos fijos, salvo cuando sean utilizados para recoger las piezas abatidas.

San Sebastián, a 9 de octubre de 2012.—El diputado foral, Jon Peli Uriguen Ansola.

(6352) (9501)